




BEZERO KANALAK

Gure enpresan komunikazioa batez ere Internet bidez izango da. Gure enpresa, jendeari erakargarri egiten zaion moduan erakutsi nahi dugu, ahalik eta bezero gehien edukitzeko. Honetarako sare sozialak erabiliko ditugu: Instagram, Facebook edo TikTok esaterako.



Gure asmoa gure bezeroekin harreman zuzena izatea da, gune segurua dela frogatzeko eta horrela bezeroek lasaitasunez erosi ahal izateko. Sare sozialen bidez hitz egin diezagukete zalantzaren bat badaukate edo informazioa jaso nahi badute.

Erabiliko dugun banaketa-kanala, posta izango da, bezeroek eskatutako produktuak enpaketatuko ditugu eta posta bidez bidaliko dugu. Eskatuzgero posta azkar bidez bidaliko dugu baina kostu extra hori bezeroaren esku geldituko da.

